

2026/3/19

7.3. Erregimenaren finkapenari emandako erantzuna: babes, indiferentzia eta oposizioa

1960ko hamarkadan, behin betiko legitimatu zen erregimen frankista nazioartean; AEBrekiko harremana sendotu zelako, batik bat.

1962an EEBn (^{Union Europea} Europako Ekonomia Erkidetia) sartzeko eskaera ofiziala egin zuten, baina ez zuten erantzunik jaso. Eskaria errepikatzen joan ziren, estatu batzuekin akordio ekonomikoak lortuz; 1970ean Lehentasunezko Akordioa sinatu zuten EEBrekin, merkataritza errazten zuena.

1967an nazioartean arrakasta handia lortu zuten, Gibraltar zela eta, Britainia Handiarekin zuten istiluan NBEk deskolonizazioaren aldeko argumentuen alde egin zuenean.

Gibraltarreko arazoa nazioartera zabaltzean, Espainiak Afrikan zituen kolonizazio-hondarrak aztertu beharra ekarri zuen, 1968an Ekuatore Gineari independentzia emanaz eta 1969an Ifni Marokoren eskutetan utziz. 1975ean, Espainiak Sahara Maroko eta Mauritaniaren eskutetan utzi zituen (Ibilaldi Berdea), baina, trukean, Ceuta eta Melillako jabetza bermatu zen.

1960ko hamarkadan emandako aldaketa sozialen ondorioz, erregimenaren kontrako jarrerak eta protestak ugartu ziren, eta, oposizioa indartu zen.

1962ko apirillean, kanpoko zein barneko oposizioko indar guztiek (komunistak izan ezik), Europako Mugimenduak Munichen egin zuen kongresuan parte hartu zuten. Bertan, Espainian zegoen sistema antidemokratikoa salatu zuten eta fronte bateratua osatzen ahalegindu ziren, Espainiak EEBn sartzeko eskaerari ezetza emateko. Frankistek sinatzaileei traidore, Espainiaren etsai eta masoien zein marxisten lagun izatea leporatu zitzaizkien.

Ekonomiaren garapenaren ondorioz, 1967tik langileen mugimendua politizatu zen, eta greba eta manifestazio ugartara deitu zuen. Gainera, sindikatu klandestinoak sortu ziren (CCOO).

Ikasleen mugimenduek erradikalizatu ziren eta 1964tik SEUK indarra galdu zuen. Protestak ^{el Sindicato Español Universitario} Frankismoa ^{elakertuta: Falange} ^{espainiar} areagotzean, erregimenak errepresioarekin erantzun zuen.

Eliza Katolikoaren sektore baten ere diktaduraren aurkako jarrera zabaldu zen, eta apaiz batzuek langile eta ikasleen protestetan parte hartu zuten. Gobernutik gotzain gorri eta apai komunisten kontrako salaketak eman ziren eta apaiz eta fraide asko kartzelaratu zituzten.

Estatuarekiko harremana higatzen hasi zen eta 1971ean Tarancón kardinalak barkamen eskaera egin zuen Gerra Zibilean Elizak izandako jarrerarengatik.

Euskal Herrian eta Katalunian nazionalistak indarberritu ziren. 1959ko uztailean ETA jaio zen eta 1967rako, askatasun nazionalerako mugimendu iraultzaile gisa definitu zuten bere burua, diktadura frankistak eragiten zuen opresioari aurre egiteko helburuz borroka armatuari ekin zion. Handik aurrera, ETA erregimenaren arazo nagusia bihurtu zen eta frankismoak Euskal Herria osoari eragin zion errepresio gogor hori.

PSOE, UGT, CNT eta PCE berreraitzen joan ziren Espainian, azkenengoa alderdirik indartsuena eta antolatuen izanik. Erregimenak gogor eraso zuen atxiloketa, kartzelaratzeta eta heriotza zigorrekin. 1969tik aurrera oposizioak herrialde barnean jardutea eta desadostasunak gaitzitzea erabaki zuten.